

[ASTIGARRAGA](#)

Sagar eta sagardo artean, atzo eman zitzaion hasiera 2023ko txotx denboraldiari

Kronika - Erredakzioa 2023-01-12 00:00



Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia atzo, urteko lehengo txotxean.

Atzo eguerdian ireki zuten urteko lehen kupela Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak: «Gure sagardo berria!» oihukatuz, Alorrenean.

Alorrenea sagardotegia izan zen atzo protagonista, bertan ireki baitzen urteko lehenengo kupela. Eguerdian Sagardoetxean, uzta berria aurkeztu eta sagarraren nahiz sagardo berriaren ezaugarrien berri eman zuten, sagardoaren munduko gertaera garrantzitsuenekin batera, tartean zeuden Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea eta Sagardun Partzuergoko lehendakaria; Eusko Jaurilaritzako, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Euskal Sagardoa Jatorri Izendapeneko ordezkaria, eta eguneko protagonista nagusiak: Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola.

Uzta berria aurkeztu ostean, sagarrondo berri bat landatu zuten bi aktoreek, Sagardoetxeako sagastian, Alaia Martin eta Agin Labururen bertsoek lagunduta. Ekitaldi berezi honekin, naturaren dinamikotasuna eta berritzeko ahalmena azaldu nahi izan zituzten, izan ere, urtetik urtera mahai batean sagardoaren bueltan esertzeko aukera eskaintzen du.

Sagarrondoa landatuta Alorreneara bertaratu ziren denak. Bertan, Astigar dantza taldeak txistularien eta txalapartarien laguntzarekin sagar dantza eskaini zieten Garmendiari eta Plazaolari, eta jarraian, soka dantzan parte hartzera gonbidatu zituzten, etxeko jabeek.

Amaieran, 2023ko txotx denboraldiari hasiera eman zieten, urteko lehenengo kupela irekiz, eta pozik oihukatu zuten Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak: 'Gure sagardo berria'.

[Gizartea Astigarraga](#)

Erlazionatuak



XXX. Sagardo Berriaren Eguna

Kronika - Erredakzioa urt 11 [Astigarraga](#)

Gaur eman diote hasiera, Astigarragan, aurtengo txotx denboraldiari. 30garrenez ospatu dute Sagardo Berriaren Eguna. Sagardoetxean egin dute aurkez...

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun ▼



Goiko postuetan finkatzeko garaipen garaipena lortu zuen Hernanik, Lagun Onak mendean hartuta



Iñigo Legerburuk bigarren saria lortu du Mungiako bertso-paper lehiaketan



Pantazak euskaraz ekinginaren aurkezpena bihar, Erriberan



Xinabako ikasleak guslori Kronikan

Ikusienak



[Istripua izan zen atzo gauean, Zikuñagan](#)

Kronika - Erredakzioa urt 16, 11:44 [Hernani](#)



[Eskerrik asko Isabel Zubillaga Huici](#)

Kronika - Erredakzioa urt 16, 00:00 [Hernani](#)



[Aiatz Hernani eta Joxeba Lizeaga garaile, Ereñotzun](#)

Kronika - Erredakzioa urt 16, 00:00 [Ereñotzu](#)



[«Umea hil berritan, kirofanoan bertan entzun genuen aurrenekoz: 'lasai, izango duzue beste bat'»](#)

[Erreportajeak](#)
Kronika - Erredakzioa urt 14 [Hernani](#)



[«Helburua ez da marka zehatz bat lortzea, kirola taldean egiteko aukera sortzea baizik»](#)

Kronika - Erredakzioa urt 14 [Astigarraga](#)



[Ikastaro eta hitzaldi bana izango da urtarrilean, gurasotasun positiboa sustatzeko](#)

Kronika - Erredakzioa urt 16, 00:00 [Hernani](#)

Kronika.eus

[Dobera Euskara Elkartea](#)

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · [kronika\[ABILDUA\]kronika.eus](#)



Codesyntaxek garatua



[HONI BURUZ](#)

[LEGE OHARRA](#)

[PUBLIZITATEA](#)

[ARAUAK](#)

[HARREMANETARAKO](#)

[RSS](#)



Gertuko informazioa, euskaraz

[AIARALDEA](#)

[AIKOR](#)

[AIURRI](#)

[ALEA](#)

[AMEZTI](#)

[ANBOTO](#)

[ANTXETA](#)

[ATARIA](#)

[BALEIKE](#)

[BARREN](#)

[BEGITU](#)

[DEUSTUALDEA PREST](#)

[ERLO TELEBISTA](#)

[ERRAN](#)

[EUSKALERRIA IRRATIA](#)

[GEURIA](#)

[GOIENA](#)

[GOIERRI TELEBISTA](#)

[GUAIXE](#)

[HIRUKA](#)

[KARKARA](#)

[KRONIKA](#)

[MAILOPE](#)

[MAXIXATZEN](#)

[NOAUA](#)

[OIZMENDI TELEBISTA](#)

[PLAENTXIA](#)

[TXINTXARRI](#)

[URIOLA](#)

[UZTARRIA](#)

[28 KANALA](#)

[Gurean](#)

[Plazanbazan](#)

[Ttap](#)

[Tokikom publizitatea](#)